

Gure historiari atzera-begirada

LIMANG

Aurkezpena

o zbk.

2004ko azaroaren 7a

*Amasa-Villabona...
Bai iragan ona!*



AMASA-VILLABONAKO HISTORIA JASOTZERA GOAZ

Iragana orainera ekarriko dugu

Duela sei urte, Larramendi Bazkunak Atzoko Andoain eta andoainarrak argitalpena martxan jarri zuen Andoainen, Jone Larrañagaren gidaritzapean. Garai bateko Andoaingo historia bildu zen bertan. Hilabetekari hark harrera beroa izan zuen andoainarren artean. Urte batzuk beranduago, Amasa-Villabonan saiakera bera egitera goaz. Herri baten historia jasotzeko modurik egokiena, herri-tarren ahotsak biltzea dela sinestuta.

Hainbat amasarrekin eta villabonatarrekin hitz egin dugu, hilabetekari honetan parte hartzeko deia luzatuz; guztiak ez dira gonbidapenari baiezkoa emateko moduan izan baina, koadrila polita osatu dugu, dozena bat lagunetik gorakoa. Agian izango da gonbidapena jaso ez eta parte hartzeko gogoz geratu den hizlari onik. Denen izenekin gogoratzea zaila denez, lerro hauen bidez, inori aterik itxi nahi ez diogula argi utzi nahi dugu. Beraz, badakizue, parte hartzeko gogoz bazaudete, jar zaitezte lehenbailehen gurekin harremanetan.

Lumane izango du izenburu bildumak: Amasa eta Villabonaren artean kokatzen zen izen bereko baserria, gure historiaren zati izatera igaro zena. Herriko mugetako bat izan da gure abiapuntua. Garai bateko ohiturez eta bizimoduaz hitz egingo du, iragana orainera ekarri. Kontu alaiak eta ilunagoak izango ditu oinarrian, kolore guztietako pintzeladak.

Lehen zerbaki hau egitasmoaren eta parte hartzaileen aurkezpena da. Aurrerantzean, gaiak sakonago aztertzen ahaleginduko gara, zortzi orri izango dituen argitalpenean. Kontu bitxi ugari eza gutuko dugu, herritarren hamaika pasadizo, eta hori guztia, kontu-kontari arituta. Hilean behin, zortzinakako taldetan bilduko gara, garai haiek bizi izan zituzten gizonekin eta emakumeekin.

Dagoeneko aldizkariak nola eskuratu galdetzen ariko da bat edo beste, ezta? Hilean behin kaleratuko da argitalpena. Hilabete bakoitzeko lehen asteburuan, hain zuzen ere. Ez da xentimorik ordaindu beharko. Egunkariak saltzen dituzten dendetan banatuko da, egunkariarekin batera. Eta zein egunkariarekin? Bada, bakoitzak erosteko ohitura duenarekin. Denekin, beraz. Egunkaririk erosteko ohiturarik ez baduzue ere lasai, okindegietan ere guztion eskura izango baita.

Mila esker, bihotzez, argitalpen hau abian jartzeko laguntza eskaini diguzuen herritar guztiei. Guztiontzat izan dadila aberasgarri!

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizue zareten herritar guztioi. Lagun giroan eta kontu...



**MARIA LUISA
ZALAKAIN
ODRIOZOLA**
1930-I-18

Villabonako Mendiluze etxean jaioa. Handik Otxabiko Olatxo etxera igaro ziren eta ondoren, Kale Nagusiko Txuine baserrira. Andoaingo eta Villabonako Subijanan egin zuen lan.



**ISABEL BERAZA
IGUARAN**
1915-VII-5

Villabonako Agaraitz baserrian jaioa. Mojetan ikasi zuen, 16 urte bete zituen arte. Baserriko eta etxeko lanetan buru-belarri lanean aritu zen. Villabonako Kale Berrira bizitzera etorri zen gero.



**ANJELITO
UGARTE
JAUREGI**
1926-XI-10

Sao Paulon jaio zen, Brasilen. Aita pilotaria zuen eta urte askoan bizi izan ziren bertan. Gurasoak villabonatarrak zirenez, herrira itzuli ziren, Kale Berrira. Pilotari profesionala izan zen eta munduan barre-na ibili zen pilotan.



**MARITXU
MENDIZABAL
ZENDOIA**
1930-I-8

Amasako Goiko-etxe-azpi baserrian jaioa. 32 urtez bizi izan zen bertan, Andoainera ezkondu zen arte. Jostuna izan da lanbidez. Subijana etxean 14 urtez egin zuen lan, telaretan.



**MARTIN
LASKURAIN
IDIGORAS**
1922-X-12

Tolosan jaioa. Txikia zela, Amasako Andrategi baserrira etorriak. Ezkondu, Villabonako Kale Nagusira igaro ziren. Portu papeleran egin zuen lan, Kale Nagusiko Koperatiba dendan gero. Txistularia.



Atzeko ilaran: Martin Laskurain, Miguel Lertza, Yarra, Isabel Beraza, Maritxu Mendizabal, Jo...



**ANJEL EGIÑO
LASAGA**
1925-X-30

Villabonako Kale Nagusian jaioa. Mojetan eta herriko eskolan ikasi zuen. 10 urterekin Sacem lantegian hasi zen lanean. Herriko dantza taldeko kide izan zen.



bizitzera hura be hasi zen treriaral onera"



Herriko tari afiz ro ezbe Subijan du eta g

egu Amasa eta Villabonako historia biltzeko lan honetarako prest azaldu u-kontari lan polita egingo dugu guztion artean, mila esker!



**PAKITA LASA
IRASTORZA**
1928-I-18

Villabonako Barriola etxean jaioa. Kale Berri-
ra etorri ziren
errepidea egiteko, etxe
zutenean. 14 urterekin
Tolosako Aranguren sas-
o galtzak josten. "Panta-
esaten zioten.



**JABIER
BERASALUZE
ZALDUA**
1926-II-20

Villabonako Kale
Nagusian jaioa,
Aprendiz hasi zen Sacem-en eta
geroztik, bertako bulegoan egin zuen
lan. Musika bandako kide, aurrena
tronboia eta gero bombardinoa joz.
Koruko partaide ere izan zen.



**MARITXU
GONZALEZ
ODRIOZOLA**
1929-VII-3

Amasako Marti-
ne baserrian jaioa.
Villabonako
Oriamendiko etxetara etorri ziren
bizitzera. Lau urtez, Amasamendiko
Muttei biberoan egin zuen lan.
Ondoren, Zizurkilgo Alas lantegi-
ra igaro zen.



**PEDRO
ARRATIBEL
EPELDE**
1929-II-5

Villabonako Kale
Nagusian jaioa.
Musika bandako kide, saxofoia joz.
13 urterekin hasi zen Sacem-en lane-
an. Mekaniko lanetan aritu zen 20
urte zituen arte. Ondoren, Sacem-
go bulego lanari ekin zion.



andi, Roberto Garate, Pello Iribar, Angel Egiño, Angelito Ugarte eta Jabier Berasaluze. Aurrean: Encarna
e Ugartemendia, Pepita Lasa, Pakita Lasa, Maritxu Gonzalez, Maria Luisa Zalakain eta Pedro Arratibel.



**ENCARNA YARZA
ZENDOIA**
1916-III-25

Amasako Mikel
Yarza baserrian
jaioa. Bertan bizi
izan zen Andoainera ezkondu zen
arte. Amasako eskolan ikasi zuen
lehenik eta gero, Zumaiako Maria
y Jose kolegioko internatuan egon
zen bi urtez. Etxeko eta baserriko
lanetan jardun izan du.



**PELLO IRIBAR
PERURENA**
1924-X-18

Aian jaio zen
arren, txikitari
etorri ziren Villa-
bonara bizitzera.
Perratzailenea etxean bizi izan ziren.
Herriko eskolan ikasi zuen eta ofi-
zios, perratzailea izan da. Osabek
erakutsi zioten errementari lan-
gintza, haiek ere errementariak
izan baitziren.



**MIGEL
LERTXUNDI
SUBINAS**
1927-IX-21

Villabonako Kale
Nagusian jaioa.
eskolan ikasi zuen. Pilo-
onatuia izan zen. Matade-
dinetan egin zuen lan.
n hasi zen lanean ezkon-
ro.



**JOXE
UGARTEMENDIA
TOLOSA**
1923-IV-10

Amasako Euxita
baserrian jaioa.
Txikia zelarrik, Villabonako Kale
Nagusira etorri ziren. Otsabira
ezkondu zen eta egun, Kale Berrian
bizi da. Portu papeleran egin zuen
lan. Afizioz, sukaldaria da.



**ROBERTO
GARATE ELOLA
"AMALLU"**
1919-IV-29

Amasako Amallu
baserrian jaioa.
Tuterako Jesuitetan batxillegoa egin
zuen. Amasamendiko biberoan,
Villabonan familiak zuen tabernan
eta Salvadoran egin zuen lan. Base-
rritarra eta txistularia izan da.



**PEPITA LASA
MOROTEGI**
1926-III-10

Amasako Pasus
baserrian jaioa.
Bertan bizi da
egun ere. Herri-
ko eskolan ikasi zuen, 12 urte bete
arte. Baserri eta etxeko lanetan aritu
izan da beti, esne-saltzaile ere
bai.

GAIK GAI, BIZIMODUAREN ERREPASOA

Amasa-Villabonan musikak izan duen garrantzia-rekin hasi eta hamaika gai lantzeko aukera izango dugu aurrerantzean. Garai bateko Amasa eta Villabona ezagutuko ditugu; baserri-giroa, eskola, jolasak, errebotea, bestelako kirolak eta apustuak, Santioak, Samartinak, erlijioa, jai egunetako ohiturak, Gabonak, lanbide zaharrak, lantegiak, etxeko lanak, herriko txokoak (dendak, tabernak eta sagardotegiak batetik; errota eta garbilekuak, bestetik). Garai ilunagoak ere mintzagai izango ditugu: gerra zibila esaterako. Gerraren ondorenarekin emango diogu amaiera bilduma honi. Hogei gai izango dira guztira, hogeit aldizkaritan bildu eta zuen denon eskura jarri nahi ditugunak. Iragana ezagutu behar da oraina ulertzeko, ezta?

LANBIDEAK



Garai bateko lanbideen berri ezagutuko dugu; eskulanean oinarritutakoak nahiz lantegietan makina bidez egiten zirenak. Izan ere, garai bateko lanbide ugari, gaur egun ez baita gogoratu ere egiten. Subijana, Salvadora, Saizar nahiz Sacem lantegiak ere mintzagai izango ditugu.

ESKOLA



Herriko eskolak nolakoak ziren ezagutuko dugu, nola ikasten zuten eta zein baliabide zituzten. Plazako eskola nazionalak nahiz moja eta apaizen ikastetxe pribatuak izango ditugu mintzagai. Ikasketen inguruko pasadizo bat baino gehiago ekarriko dugu orriotara.

MUSIKA



Musikak berebiziko garrantzia izan du Amasa-Villabonan. Aitonamonei nahiz gurasoei entzunda, gazteenek jakingo dute oso giro ona izaten zela igande arratsaldetan Villabonako plazan, musika bandaren eskutik. Herritarrek jo eta su aritzen omen ziren dantzatan. Txistuak ere badu tradizioirik Amasan eta Villabonan. Luis Oharretxena konpositorearen berri ere izango dugu. Villabonako marxa ezagunaren egilea oso organujole ona izan omen zen, garai haietan.

PESTAK



Santio jaietako ohiturak gogora ekarriko ditugu, dantza-soka dela, Santa Ana edo San Inazio egunak direla... Samartinak ere mintzagai izango ditugu eta beste hainbat ohituren artean, oilaskojokoaz arituko gara. Gainerako jai egunetako ohituren berri bil-tzen ere saiatuko gara.

KIROLAK



Amasa-Villabonan, errebotea izan da tradizio nagusia, kirolen arloan. Pilotariak izan zirenen oroitzapenak jasoko ditugu, baita pilotazaleak izan ziren herritarrenak ere. Frontoiaren inguruan sortzen zen giroaz gain, bestelako kirolek ere izango dute tarterrik gurean: estropadak, futbolak, txirrindularitzak... Apustuak ere ez ditugu alde batera utziko, haien berri ere izango da.

ARGITARATZAILEAK



Amasa-Villabonako Udala



Manuel Larramendi Kultur Bazkuna

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Amasa-Villabonako Udalaren dirulaguntzaz. Ekoizlea: Erroitz B.M. Zuzendaritza eta erredakzioa: Ainhoa Arozena. Maketazioa: Maddi Truxuelo. Argazkiak: Erretratu zaharren liburua (Larramendi Bazkuna) eta artxibo ezberdinak. Inprimaketa: Sortu grafikak (Zizurkil). ISSN: Izapidetan. Lege gordailua: SS-1289/04. Tirada: 1500 ale.

EKOIZLEA

BABESLEA



Eusko Jaurlaritza KULTURA SAILA